




 BOOKTEGI

ardi galduak

NEREA LOIOLA

E
l
k
a
r
r

I
r
a
k
u
r
r
i
z



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

NEREA LOIOLA

ardi galduak

Esan nuen eta berriz diot: istripu eta zoritxar pilaketa bat izan zen, kasualitate segida bat. Ez nintzen munduko amarik onena izango, baina umea ongi zainduta zegoen; ez naiz munstro bat, joder. Ardien erruz izan zen. Bueno, Iñakiren erruz.

Ez dakit, ez dut Iñakiren berri izan herritik alde egin nuenetik.

Beharrezkoa ez bada, nahiago galdera horri ez erantzun.

Bale, saiatuko naiz, baina hamar urte baino gehiago igaro dira. Oroitzapen batzuen arazoa da ahaztu egiten zaizkigula, egun batean azalera itzultzen diren arte, estolderietako urek gainezka egiten dutenean bezala. Nahita ez dizut gezurrik esango, hori baldin bada zure kezka.

Hiru aldiz zenbatu nituen... hogeita hiru, hogeita lau eta hogeita bost. Zazpi ardi falta ziren. Haien bila aritu nintzen basoko sasiarte eta zuhaitzen atzealdeetan. Bertakoek ez dute inoiz «zuhaitz» hitza erabiltzen, buruz dakizkiten arbola espezie pila sinestezin horietakoen artean egokiena hautatuko dute; inoiz ez zuhaitza, inoiz ez landarea, animalia edo etxea. Denak du izen bat. Bere izena. Baina, nik orduan, ezta orain ere, ez nekien esaten esker gaiztoko baso hartan zuhaitz horiek pagoak edo haritzak edo auskalo zer ziren. Kontua da, behintzat, falta ziren ardiak ez zeudela han. Ardiei buruz ere ez nekien gauza askorik, ezta orain ere; baina banekien taldean ibiltzen direla, eta zazpi ardi ez direla besterik gabe desagertzen. Sargori zen, beroak akabatzen ibili nituen gora eta behera xendra batzuk, ardiak begiratzeko ardura hartu izanagatik nire buruarekin amorratuta.

Abila izan naiz beti gogoz kontra egingo ditudan lanak onartzen; *Bai, lasai, egingo dut nik, ez zait ezer kostatzen*. Portaera iluntsua iduri lukeen arren, ez da: ezezkoa esaten ez dakien emakume bat gehiago naiz, besterik gabe. Iñakik eskatu zidanean bera lanean ari zen bitartean ardiak begiratzeko, ez nion ezezkorik esan. Eskatu ez, agindu egin zidan gainera, eta horrek are zailago jartzen zidan ukoa. Badakit, nire iragana ezagututa, zaila dela obedientzian zimendatutako haurtzaroa irudikatzea. Inposatu dizuten otzantasunak barrutik atzamarkatzen bazaitu, eta erraietako minari isilpean eusten badiozu, tarteka ihesbideren bat behartu behar ezinbestean. Jasangaitza litzateke bestela. Hori bai, zauriak eta lotsaizunak beti barrutik, ezkutuan, ez ditzala inork antzeman; kalterako guztia era horretan bizitzeko, sufritzeko, hezi ninduten. Falta ziren ardien arrastorik ez eta, erdi etsita, mugikorra atera nuen poltsikotik ordua ikusteko. Triniri agindua nion umea siestatik esnatu aurretik itzuliko nintzela.

Bertakoek Asubeko Trini esaten zioten, herriko hogeita bederatzi biztanleen artean, beste Triniren batekin nahasgarri gertatuko balitz bezala. Nik Trini esaten nion. Apezetxeko Sandra nintzen ni hangoentzat. Kalekumea. Hori nire isilpean esaten zuten, jakina. Izterretako izerdiaren hezetasunak mugikorreko pantaila lanbrotu zuen poltsikoan, kamisetarekin igurtzi behar izan nuen. Erditu ondoren askoz izerdi gehiago botatzen hasi nintzen eta ez naiz inoiz neurera itzuli. Ez dakit normala den.

Barkatu, bai, saiatuko naiz gertakarietara mugatzen.

Umearen siesta zaintzeko eskatu nionean, ardietatik berehala itzuliko nintzela eta, lasai egoteko erantzun zidan Trinik gozoro. Kotxetxoari etengabe eragin ezean, esnatu egiten zen umea; eta esnaera petralekoa zen. Ezezkorik esaten ez dakigunok aise identifikatzen ditugu geure modukoak.

Ez zen lehen aldia, Trini erabiltzen nuen umearekin zerikusia zuten mesedeetarako; bertako

emakumeetan gazteena zen. Edo hala ematen zuen. Lehen ere esan dizut herrira iritsi berria nintzela, ezta?

Han bizi izan nintzen bitartean, ez, ez nintzen inoiz adina galdetzera ausartu; gerora, hil zenean egunkariko eskelan ikusita jakin nuen 83 zituela kontatzen ari natzaizuna gertatu zenean. Ez zuen hain zaharra ematen.

Berandutzen ari zitzaidan, ez nuen itzuli nahi umea esnatu ondoren, ezta ardiak non zeuden jakin gabe ere. Ardiena ez da egia: pito bat inporta zitzazkidan. Nahi ez nuena zen lñakirekin eztabaida izatea, eta elkarrekin generaman denbora apurrean zerbait ikasi banuen zen harentzat ardiak oso garrantzitsuak zirela. «Oso» diodanean, «O-SO» esan nahi dut.

Ez dakit. Izaten genituen eztabaidak, baina ez nuke esango asko ziren. Uste dut hark gustuko zituela. Nik iskin egiteko joera dut, nahiago gauzak gogoz kontra egin bikotekidearekin eztabaidan aritzea baino.

Ez pentsa, gehienetan neure burua engainatzea lortzen dut, eta ahaztu egiten dut gogoz bestera ari naizela. Errazagoa da horrela.

lñakiri deitu nion. Deiak tonurik ematen ez zuela ikusi arte ez nintzen ohartu baso zarbatsu aldapatsu gogaikarritsu hartako estaldura-faltaz. Hortzak estutu nituen eta, beharbada, ukabilak ere bai. lñakiren ahotsa entzun orduko zaunka hasteko asmoa nuen, eraso defentsa moduan erabili, badakizu. Esango nion ez nintzela gehiago zazpi ardi tuntunen bila ibiliko alaba emakume ezezagun batekin utzita, eta esango nion ezin direla animaliak eduki hogeita lau orduko txandetan egiten baduzu lan. Estaldurarik gabe eta mastekatu gabe irentsi behar izan nituen hitzok. Azkenean, gainerako ardiak zuhaitzen itzalean utzita, herrirako aldapa gora hartu nuen. Pikutara falta ziren zazpiak; igual, errepide ondoko iturrira joanak ziren. Hortxe hanka-sartzea. Burutazioa etorri zen bide beretik bidaltzen saiatu nintzen, baina, horrelakoetan, gogamena ez da batere praktikoa izaten. Errepidea. Eta beheko langa zabalik badago? Eta ardiak galtzadara atera badira berriz ere? Auto batek harrapatzen baditu? Eta auto batek ardien erruz istripua izan eta gidariari zerbait gertatzen bazaio? Orduari begiratu nion berriro, mendian behera abiatu nintzen. Sasiak hankan eragindako minak gelditu ninduen. Minak negargura eragin zidan, baina negargura ez zen minarengatik. Kleenex baten bila miatu nituen poltsikoak, odol hari fin bat ari zitzaidan irristatzen bernan behera, eta ezin dut odolarekin. Mareatu egiten naiz. Ez beti, ez dakit zeren arabera gertatzen zaidan eta, beraz, errekatxo gorria lehenbailehen desagerrarazi behar nuen. Joder, garbigailua beti desagindako kleenexez beteta eta, gehien behar nuen unean, poltsikoak hutsik; ezta umearen mukiz edo lerdez zikindutako bat bera ere. Ingurura begira makurtu nintzen, hosto handiren batekin moldatu behar; baina halakorik ere ez zegoen, sinetsi dezakezu? Azkenean, bazter guztietan egoten den landare hori hartu nuen. Horren izena badakit, nola da, nola da? Orain ez naiz gogoratzen, lehortu eta ardien-eta ohea egiteko erabiltzen den hori da, mendian mordoa egoten da. Berdin dio. Elkarren gainean gurutzatutako hosto eskukada batekin odol-haritxoa garbitzen ari nintzela entzun nituen pausoak.

Hemen, kostaldeko gure artzaina.

Xebe, Etxaluzekoa; ahotsa ezagutu nion ikusi aurretik. Inoiz ahanzten ez zaizun ahots horietako bat dauka, komikoa, Bugs Bunnyrenaren antzekoa. Zutitu egin nintzen. Irribarretsu begiratzen zidan nigandik bizpahiru metrora, bi esku-barruak makila batean bermatuta eta gorputza apur bat aurrera makurturik. Kizkur beltz harroak begietaraino iristen zitzaizkion ia. Begirada ere inoiz ahanzten ez

zaizun horietakoa dauka, gizonezkoetan baino sortu ezin daitekeen horietakoa, badakizu. Haren maneretan lizunkeria ikusten nuen beti. Harroputz sentiarazten ninduen, emakume eta gazte izate hutsagatik desiratuko ninduela pentsatzeagatik. Errudun sentitzen nintzen, gainera, eta bereziki, gustatzen zitzaidalako. Ez bera. Berak nirekiko bizi zuenaz ari naiz. Perbertsoa eman dezake, baina berotu egiten ninduen begirada basati hura bortxaren mugetatik hain gertu sumatzeak; irudikatzeak norbaitek kontrola galtzeraino desira nintzakeela.

Zer, ez esan ez duzula inoiz halakorik sentitu... Noski hau horrela gertatzen zen, aurrez pentsatzen nuelako ez zela benetako arriskurik neure fantasietatik haratago. Baina, egun eta leku hartan, Xeberen begietan ikusi nuenak odola izoztu zidan une batez. Goitik behera begiratu zidan. Gora eta behera begiratu nuen. Beheko errepiderako xendra guztiz blokeatzen zuen haren gorputz mardulak, Bugs Bunnyrenaren gurintasunarekin zerikusirik ez zuenak. Erabaki nuen, larrituz gero, sasien gainetik salto eginez ekin beharko niokeela ihesaldiari.

Zazpi ardi falta ditugu.

Begiratu dun goian, Mergelun? Asubekoekin elkartuta akaso txoro horiek.

Bilaketa gogaikarriarekin amaitzeko aitzakia ematen zidan aukera horrek eta berehalakoan heldu nion.

Herri aldera zoaz?

Niri begira geratu zen beste pixka batean. Gero baiezkiko laburra egin zuen buruaz, beste espaloitik pasatzen den ezagun bat agurtzen denean bezala. Berriketan egin genuen herrirako bidea: hura ordura arteko nire kalekume bizitzari buruz galdezka, eta ni ahalik eta gezurrik sinesgarrienak erantzuten.

Zer?

Ba, egiak kontatu izan banizkion, nitaz irudi okerra eraikiko zuelako. Emakumeoi ez zaigu ezer barkatzen.

Nahi duzuna, baina ondotxo dakizu zuk ere zertaz ari naizen...

Ados, saiatuko naiz. Tarteka hankarekin hanka, besoarekin besoa edo aldakarekin aldaka ukitzen zizkidan, oharkabea bezala, bide malkartsuak oreka galtzea eragingo balio bezala. Nik banekien nahita egiten zuela, berak bazekien nik banekiela. Haren asmoa marra gorrietara neurri hartan gerturatzea baldin bazen, ez nintzen ni izango jostaketa ilungaiztoa etengo zuena.

A, bai, noski, halakoek nahi dutena egiten bukatzen dute beti; saiatu saiatzen dira behintzat. Baina, egun hartan, esan dizudan moduan hurreratzeaz gain, ez zidan ezer egin.

Garoa.

Gogoratzen ez nuen landarea, odola garbitzeko erabili nuena, garoa zen; «iraztorra» esaten zioten haiek. Esan dizut ezaguna zela. Berdin du. Ailegatu ginenean, umeak lotan segitzen zuen; Trinik, kotxetxoari eragiten.

Umea ondo zegoen.

Ez, hori handik egun gutxira izan zen.

Hau kontatu dizut, ardiak galdu ziren egun hura izan zelako, nolabait, ondoren gertatu zenaren

hasiera.

Triniren etxean afaldu nuen, eta bene-benetan diot emakume horri ez niola inongo ahuldaderik ikusi.

Nola jakingo nuen ba nik bihotzeko arazoak zituela? Bazekien berak? Umearekin laguntza behar nuen, zer nahi zenuen egitea? Herriko emakume guztien artean, berari hartu nion itxurarik onena.

Gurasoak handik urrun bizi nituela badakizu. Ulertzen ez dudana da, lehen ere esan dizut, zertarako kontatu behar dudan berriro hau dena Garaziren kustodia berreskuratu nahi ez badut, eskuan dituzun paper horietan baldin badago orduan esan nuen guztia.

Trinik baieztapenen bidez galdetzen zuen askotan: *Jango dun zerbait hemen*. Noka hitz egiten zidaten han denek, eta nik zuka erantzun; nekien modu bakarrean. Ez ziren inoiz nirera aldatu. Kalekumetarkeria nabarmentzeko zela uste nuen, baina orain ez dakit, agian erakutsi egin nahi zidaten, besterik ez. Zaila da aurrejuzguz erantzeta, *piensa mal y acertarás* denean zure amak txikitatik gehien errepikatu dizun esamoldea. Umea itzuli zidan unean bertan hasi zen Trini sukaldean hara-hona, ekonomikan mukur bat sartu, hango eltzea hemen jarri, hemengoa harraskan utzi, patatak zuritu, trapuarekin bazterreko zikinak garbitu...

Etxean afalduko dut, ez dizut molestatu nahi.

Joanixio lanean da, ez?

Izen bat herrian, beste bat herritik kanpo; pertsona bat herrian, beste bat handik kanpo. Ez nuen denbora askorik behar izan nire gustukoa lñaki zela erabakitzen; ez nuen ikusi nahi izan Joanixio izango zela beti herrian. Esperantzak bizitzen lagundu adina engainatu behar du. Galdetu arren, Trinik bazekien erantzuna. Herriko jendeari buruz jakin zitekeen guztia zekien emakume hark, eta jakin ezin zitekeenetik ere gehiegi. Nik hori neure alde nuen behintzat: iragan zuriz abiatzen nintzen han; nahi nuena kontatu nezakeen, nahi nuena asmatu, ezabatu. Bueno, hogeita bost urte eta urtebeteko haur aitarik gabe batekin azaltzeak zertzelada batzuk inposatzen zizkion lehenaldiari, baina moldatu nezakeen zerbait zen: beste inoren bertsiorik gabe, erraza da biktimaren lekua hartzea. Triniren sukaldean, umeak, nire belaun gainetan eserita, behin eta berriz abesti-jolas berbera errepikarazten zidan: *Zaldi zaldi gainean korrika korrika, zaldi zaldi gainean korrika bai...* Umea txoratzen, ni kokoteraino. Trinik ez zidan bitan galdetu, ez zituen kortesiazko luzamenduak maite; pare bat arrautza frijitu atera zizkidan entsaladarekin mahaira.

Umea oheratu eta ikasteko tartea izango dun horrela.

Uste zuen master bat ari nintzela online ikasten. Denek hala uste zuten.

Bai, nire gurasoek ere bai. Haiei presentziala zela esan nien, Iruñean.

Nik zer dakit, aitzakia bat behar nuen haiengandik urrun bizitzera joateko, eta ez nuen nahi inork pentsatzerik bizizale bat nintzela; eta, gainera, berez, master hori egiteko asmoa nuen.

Zer axola dio egin dudan edo ez?

Ez dut egin, ez. Beste gauza batzuetan hasi nintzen eta... ez naiz dakizuna kontatzen hasiko. Azkenean ez zait hain gaizki ere joan.

Begiradarekin eskerrak eman eta afaltzen hasi nintzen. Gorrotagarria zitzaidan umea gainean nuela jatea, ezin lasai ezer ahoratu; baina, aldamenean utziz gero, negarrez hasten zen, eta besteren etxean ezin ba hola ibili.

Esan duzun moduan esanda, badirudi okerren bat egiten ari nintzela, joder, ezin al da lasai bazkaltzeko hamar minutuz umea negarrez eduki? Ez zitzaion ezer gertatzen eta nire ondoan egoten zen. Hamar minutu ere ez ziren izango, negarrak estresatuta, mastekatu gabe irensten nuen janaria. Arnasa behar nuen, oso ume demandantea zen. Oso, oso. Jaio zen egunetik, ikaragarria. Eta hori titirik ez niola eman. Nik ez dakit nola aguantatzen duten besteek.

Ederki egiten dun ikasteari utzi gabe. Gaurko neskek dakizuena jakin izan banu nik, etxetik kanpo egingo ninan lan; eta umeak, gehienez bi. Harraskatik ari zitzaidan Trini, eltze handia garbitzen ari zela.

Zenbat izan zenituen?

Bederatzi, baina aurrera ateratakoak zazpi.

Ez nekien zer esan, eta ogi zati bat eraman nuen ahora. Bederatzi haurdunaldi eta bederatzi erditze! Imajinatzen?!

Neskato bat jaio eta hilabete gutxira hil zitzaigun, pneumonia edo auskalo; izugarri polita zunan ume hura. Leihotik begiratzen zuen hitz egin bitartean, trapuarekin eskuak lehortzen. *Eta bestea, Felitsu, burdinazko langa erori zitzaionan gainera bi urte betetzeke...*

Ezezko keinua egin zuen buruarekin doi-doi eta isilik geratu zen begirada kaletik apartatu gabe. Bizirauten iraun ahala asmatzen da.

Beste garai batzuk zitunan. Unetxo batez begirada iltzatu zidan, gero txapa gainean zegoen kafeontzia zaintzera joan zen. *Zerbait gehiago nahi dun? Kafea?*

Ondo nago.

Mamia, ttikiarentzat?

Gure aldameneko aulkian eseri zen ontzitzoa eta koilaratxoa eskuan eta, nire baieztokoari itxaron gabe, ematen hasi zitzaion.

Aitak ez du umea ikusten?

Ez du ikusi nahi, gezurra nik.

Lan gogorra dun ume bat bakarrik haztea.

Ondo moldatzen naiz, gezurra berriz.

Begiak bilatu zizkidan. Bigarren gezurraz jabetzean aurrenekoaren susmorik piztu bazitzaion, ez zidan halakorik adierazi.

Zuk ere bakarrik haziko zenituen zureak.

Ez nengonan bakarrik: amaginarreba, izebak, alaba zaharrenak... beste garai batzuk zitunan. Segi ezan umea lokarraraztera, berandutu egingo zain bestela ikasteko.

Berak erabakitzen zuen beti gure arteko hizketaldiak noiz hasi eta noiz bukatu. Umea besoetan, ate aldera joan nintzen. Irten aurretik, buelta eman eta eskerrak eman nizkion. Niri begira geratu zen berriro, zalantza egin nuen pena edo gaitzespena zer eragiten nion.

Jarrion jertsea, hoztu egingo zain bidean.

Gau hartan ez nuen begirik bildu. Gaizki egiten nuen lo lřaki lanean ari zenetan, beldurra ematen zidan bakarrik egoteak.

Umea eta biok *bakarrik* esan nahi nuen, bai, baina esango didazu lapurren bat, edo beste norbait okerragoa sartuz gero, zertan lagunduko zidan haur batek. Horregatik esan dut «bakarrik», arriskuaren aurrean bakarrik esan nahi nuen. Gauak oso ilunak ziren herrian. Eta isilak. Isiltasun luzeak ere urduritu egiten nau, ez dakit beldurra izateraino iristen den. Igual bai. Batzuetan bai.

Ongi nago. Zuk behar baduzu egingo dugu etenaldia, ez zait inporta.

Noski honek guztiak eragiten didala, zer uste duzu? Horregatik nahiago dut lehenbailehen bukatu.

Zergatik galdetzen didazu hori berriro? Zer gertatzen da, nire gurasoek ez dute Garazi gehiago zaindu nahi, ala? Derrigortu nazakete kustodia onartzera?

Umea kendu zidaten garaiaz ari zara berriz ere?

Bai, tarteka nire gurasoek zaintzen zuten.

Ardiak galdu ziren egun haietan eraman nien umea gau baterako; baina ez horregatik, beste ardiei ilea moztu behar genielako baizik.

Erleen egunaz ari naiz, bai. Panikoa diet. Edo beldur handia, ez dakit non dagoen muga.

Ez zen horrela izan.

Ez.

Ez da egia nire buruaren gaineko kontrola erraz galtzen dudanik.

Bai, hori egia da, baina hori esan zuenak nire txilioak besterik ez zituen entzun; ikusi, ezer ez.

Iñakik? Nirekin haserre zegoelako. Gezurrengatik. Dena jakin zenean asko haserretu zen, horregatik ez zuen nire bertsioa konfirmatu. Baina nik diodana gertatu zen, beste guztia nire irudia kaltetzeko sortutako txutxu-mutxuak dira.

Ez ditut inoiz agerraldi psikotikoak izan. Jendeak pisuzko arrazoiak sortu behar ditu engainatzailea gorrotatu ahal izateko. Autoestimu kontua da; urguilua nahiago baduzu.

Nik ez diet gorrotorik; luzarora begira, bizitza erraztu dit esan zuten guztiak.

Erle baten hotsa entzun nuen. Ardien balaken eta artilea mozteko makinaren durundaren gainetik entzuten zen haren burrunba. Disimuluan altxatu nuen burua, antzeztuz erlearen presentziak ez zidala eragiten. Iñakiren lepondo izerditura gerturatu zen. Hark noiz uxatuko zain egon nintzen. Helduta neukan ardiak ihes ez egiteko indarra egin, arnasari eutsi eta mingainari koxk egin nion. Erleengandik babesteko amarrua dela entzun izan dut beti; ez dakit egia den, nik erabiltzen dut eta ez dit inoiz bakar batek ere heldu.

Erle bat daukazu sorbaldan, esan nion azkenean.

Makinaren soinuarekin urduritzen ditun.

Ezin dugu lan hau beste nonbait egin?

Ez din ezer egingo, neska. Iñakik larrera ateratzen utzi zion ardi soildu berriari. Ezetz ardia etzanarazi nik pixa egin bitartean.

Bordako sarreran harrapatuta genituen ardien artetik atera zen belardira. Ez zen niri bizkarrik ematen saiatu, bistarik onenak zeuden norabidean jarrita atera zuen txirula. Txorrotada horiztari begiratu nion, hiru hilabeteko harremana gutxitxo ez ote da bestearen aurrean halako axolagabekeriaz jarduteko. Buru gainean genituen sei erlauntzei begiratu nien orduan, joan-etorri bizian zebiltzan dozenaka erle, giro itsaskorrik ez balitz bezala. Aipatu zidan lehen egunetik, instantetik, esan nion ez zela ideia ona erlauntzak han jartzea. Esan nion panikoa niela. Esan zidan nirea, izatekotan, beldurra

zela, ez panikoa; bestela hara gerturatzeko gai ere ez nintzela izango. Eta esan zidan beldurrari aurre egin behar zaiola, bestela ez nintzela inoiz pertsona hobea izango. Ederra txorakeria, ezta? Ahula nintzela ere esan zidan. Errepikatu nion erlauntzak han goian jartzea ez zela ideia ona. Sei jarri zituen. Ardia eratzaten saiatzera makurtu nintzen. Eskuin besoa haren sabel azpitik pasatuta, urruneneko hankari heldu nion, eta ezker eskuarekin saihetsaldeko ileari. Kolpe berean, eginahalean, esku batekin animaliaaren gorputzari bultzatu eta bestearekin hankari tira. Ardiak, oreka galzorian sumatzean, salto txiki batzuk eman zituen gainerako hiru hanken gainean eta eutsi egin zion.

Gogo handiagoz egin behar dun. Aldamenean neukan lñaki berriro, laguntzeko asmorik gabe.

Beste saiakera bat egin nuen, aurrenekoan baino gehiago makurtu nintzen, ahalik eta gehien gerturatu nuen gorputza ardiarenera eta indarrez egin nuen tira. Lortuko nuela iruditu zitzaidan, baina, berriz ere, animalia bihozgabeak oreka berreskuratu zuen hiru hanken gainean saltotxoak eginez.

Kalekumea, bota zidan lñakik, erdi txantxetan erdi mespretxuz. *Utzi niri.*

Nik egindako gauza bera eginda, lehen ahaleginean jarri zuen ardia hankaz gora.

Indartsuagoa zara.

Ez dun indar kontua, abilitade kontua dun. Hauekin guztiekin amaitzerako ikasiko dun.

Amari hamabitan deitzekotan geratu nintzen.

Bazkalaurretik bukatu behar dinagu hau. Hitz egingo dun umearekin arratsaldean; total, ezer esaten al din ba? Ekarri beste ardi bat.

lñakik makina martxan jarri eta mozketan hasi zen, eztabaidari aukerarik eman gabe. Gurasoek eskatzen zidaten asteburuetan umea eramateko, gustura zainduko zutela tarteka, bestela ez zutela ikusten eta, *ordu eta erdira bizitzera joan zara ba zu, urrutiago ez zegoen aukerarik, ezta?* Haiek eskatuta eginda ere, irribarre batekin agurtzen banindute ere, ni errudun sentitzea lortzen zuten. Zuten ez, zuen: amak lortzen zuen. Deskonektatu, baina egon mugikorrari adi une oro; deskantsatu, baina ez ahaztu umeak negar egiten duela gauean zu ez bazaude; disfrutatu, baina ahal bada denbora lanerako aprobe txatu. Nire ahotsa entzutean umeari aurpegia aldatzen zitzaiola esaten zidan, begiak pizten zitzaizkiola, eta deitzeko behintzat eguerdian siesta aurretik eta iluntzean lokartu aurretik. Nire amak gehixkokeria izan du beti, dramarako joera; Telecinco zanpa-zanpa irensten duen horietakoa da. Umearen kustodia beraiek nahi izatearena ere hortik dator. Ama beti jarriko da gertatu daitezkeen egoerarik txarrenetan, eta ez da nitaz fio; auskalo nola irudikatzen ninduen umea zaintzen.

Badakit nire iraganak ez zuela laguntzen, baina haurdun nengoela jakin nuenean aparte utzi nituen saltsa horiek guztiak. Seguru hori zure artxibo marabilloso horietan konprobatu dezakezula. Gauza bat da umea nirekin nahi ez izatea, beste bat, oso desberdina, umeari kalterik eragitea.

Hurrengo ardiari heldu nion. Gorroto dut animalia horren begirada izua, begiek barrunbeetatik irten behar hori, gau eta egun arriskuan egongo balira bezala; etengabe gogorarazten erne egoteari ezin niola utzi. Arriskua nonahi dago, beti, eta kontrakoa uste duena oker dabil.

Elostara joango gaitun gero, falta diren ardien bila.

Xebek esan zidan Mergelun begiratzeko, Asubeko ardietan.

Zer jakingo din horrek!

Une horretan nireari eutsi izan banio, ez zen gero gertatu zen guztia gertatuko. Banekien Xebek arrazoi zuela, eta lñakiri kontra egiteko asmoa nuen, baina, derrepente, erlarotsak nire arreta guztia bildu zuen. Orain bi ziren erlauntz-ingurua ikuskatzera jaitsitakoak. lñakirengana gerturatu ziren

zuzenean. Luzamendutan hasi nintzen hurrengo ardiaren aukeraketarekin.

Ez hadi umea izan eta hator hona.

Badakizu beldur handia ematen didatela.

Eta hik badakin ez dutela ezer egiten lasai utziz gero.

Urduri dirudite...

Etorri ja, ostia! Ez dinagu lan puta hau inoiz bukatuko bestel...aii!!!

Lepo aldera eraman zuen eskua, ziztatu zion erleari bi hatzez heldu eta urrutira jaurti zuen.

Garrasi eginarazi didan eta heldu egin zidan azkenean! Caguendios!

Nik zerbait erantzutea espero zuen, barkamena eskatzea; baina beste bost erle azaldu ziren. Soinua beldurgarria, sukaldeko batidorari topera ematen diozunean bezalakoa. Ardia askatu eta bordako sarrerarantz hasi nintzen atzeraka oinez, bost erleetatik bi niregana zetozen.

Sandra, ba, lasaitu...

Ezeko mugimendua errepikatzen nuen buruarekin, atea non zegoen haztatu nuen, begirada bi erleetan finko. Bertan nituen jada.

Sandra, ostia! Ezta okurritu ere alde egitea! Sandra! Sandraaa!!

Korrika hasi nintzen aldapa beheara, txilioka eta besoak ero baten moduan astintzen. Korrika jarraitu nuen, denak emanda, nire bi pertsegitzailen burrunba entzuteari utzi nionean ere; baita herrirako aldapa gora pikoan ere. Horiek dira herrikoek entzun zituzten garrasiak, ustezko histeria-krisiarenak. Gelditu nintzenean, arnasa falta zitzaidan, ez korrikaldiak akituta utzi ninduelako bakarrik, benetan ezin nuen arnasarik hartu. Beharra eta ezina aldi berean, ikarak eztarritik helduko balit bezala. Mareatuta, bide bazterreko egurrezko hesola baten kontra jarri nuen bizkarra. Ikaraz ere hil daiteke jendea, badakizu? Behin irakurri nuen benetan gertatu daitekeen zerbait dela, beldurraren beldurrez gorputza kolapsatzea eta bihotza gelditzea. Eta hiltzea. Hil egingo nintzela uste nuen nik une hartan. Benetan. Errenditzear nintzen gorputzak aireari bidetxoa egiten asmatu zuenean. Hormigoi beroaren gainean eseri nintzen orduan, belaun artean sartu nuen burua. Arnasa hartze ortopedikoa negarrarekin korapilatu zitzaidan, gorputz deforme bat emango nuen kanpotik ikusita. Ez dakit zenbat denbora neraman horrela lñaki azaldu zenean. Nire aldamenean eseri zen eta bi besoekin inguratu ninduen; abere-kiratsa zerion.

Listo, pasa da, pasa da. Muxu eman zidan lokian.

Sorbalda gainean jarri nion burua, ulertzen ninduelako kontent, eta egiten utzi nion, lñakiri eta negarrari; nolabait agortu beharra nuen ikara. Negar-zotinak pixka bat baretu zitzaizkidanean, lñakik besarkada lasaitu zuen eta hormigoi gainean etzan zen ahoz gora. Aurrena irribarre eta gero algara batean hautsi zuen ordura arteko isilunea.

Ikusi egin behar zunan nolako espantua egin ditunan aldapa beheara.

Gauza bat esango dizut: eskerrak zaparrasta hori guztia gertatu zen, bestela, auskalo, igual lñakirekin jarraituko nuen. Orain, atzera begira, konturatzen naiz tipo hura ere ez zegoela batere ondo. Ez dakizu nolako kalapitak izaten zituen senideekin. Kontua zera da, aurreko bikotekideen aldean, ondo tratatzen ninduela, edo hala iruditzen zitzaidala.

Fuerte da, badakit; orain dakit. Uste dut erakartzen ninduela ez zitzaiolako etorkizunik ikusten begietan. Nire bizitzan agertu zen nire biziraupen estrategia zenean orainari azazkal eta mami amarratuta bizitzea. Arazoetatik urundu arren, beti itzultzen dira modu basatian. Hori ere berandu ikasi nuen.

Ez dakit inoiz nitaz maiteminduta egon zen. Hori jakiteko modu ziurrik ba al da? Bakardadea maite zuela aldarrikatzen zuen, harrokeriaz. Oso bakarrik sentitzen zela uste dut.

Ni ere bai.

Ez diot horri zertan erantzun, zer axola dizu oraingoak?

Ez naiz gizonezkoekin ibiltzen.

Ez dut gehiago zehaztuko, ez.

Anbigua dela? Ja, ja, ja!

Ez daukat ezkutatzeko ezer, baina ez dizut zertan gaur egungoari buruzko informaziorik eman. Egia esango dizut: ez naiz zutaz fio.

Berdin zait. Nahi duzuna pentsatu.

Iñaki eta biok lagunak ginen etxea eskaini zidanean. Bueno, lagunak ez: ezagunak. Uda hasieran parranda batean ezagutu genuen elkar eta beste hiruzpalau gautan egin genuen topo. Arratsalde batez ere geratu ginen uda amaiera aldera, ordurako egina zidan bere etxera aldatzeko eskaintza. Bakardadea maite baduzu, ez duzu inor zurera bizitzera gonbidatzen, ez?

Gauetz ateratzen nintzenean nire gurasoekin egoten zen umea. Beraiekin bizi nintzen, ginen.

Esan dizut, lau zpabost aldiz atera nintzen uda hartan.

Gehiago ez.

Nahiko seguru nago.

Ba, nire amak gezurra esan zuen. Okerrena da benetan pentsatuko duela hala izan zela, abilitate galanta du asmatutako gezurrak sinesten. Alferrik eztabaidatuko diozu ezer. Ez dakidana da nola aguantatu nuen hainbeste denbora gurasoenean. Behin habiatik alde eginda, debekatua egon beharko luke itzultzea, ez da sana inorentzat. Iñakik larrialdietarako irteera bat zabaldu zidan.

Umeak zazpi hilabete zituen, eta aldaketak apenas eragin zion.

Mastera egin ahal izateko joango nintzela esan nien. Baina, gezur horrenak kontatu dizkizut lehenago ere.

Hasieran, gurasoengandik ihes egiteko asmatu nuen, Iñakirekin eta herrikoekin gero luzatu nuen, besterik gabe. Gezurra biguna da, nahi adina moldatu daiteke. Ez diozu inoiz uste baino etekin handiagoa atera gezur bati? Gezurak esatera ohitu egiten da bat, eta, azkenean, beharrezkoa ez denean ere esaten duzu gezurra, edo komeni ez zaizunean, edo ondo jakin arren besteei badakitela gezurretan ari zarela. Eta egun batean konturatzen zara ezin diozula gezurrak esateari utzi, hori egiten baduzu, galdera lazgarri bati erantzun beharko diozulako: Nor naiz? Pentsatzen jarrita, agian ez gara horretan hain ezberdinak ama eta ni.

Ez dakit, zuretzat horrek esan nahi duenaren arabera. Galdetzen ari bazara ea haren etxera bizitzera joan aurretik larrua jo genuen, orduan ez; baina jakin nahi duzuna baldin bada ea lehen aipatu dizkizudan parranda horietan muxurik edo zirrik egon zen, orduan bai.

Ez dakit horrek zer axola duen. Han bizitzen jarri nintzen, ginen, lehen egunetik elkarrekin ibiliko bagina bezala izan zen.

Ez, umea nik zaintzen nuen.

Bera ez zen aukera bat, horregatik eskatzen nion faborea Triniri. Iñakik beti zeukan zereginen bat animaliekin, edo bordan, edo baratzean; eta gainera, aitatasun senik ez zuen. Harreman oso toxikoa izan zuen bere aitarekin eta uste dut hura errepikatzeko beldur zela; auskalo, hori nire teoria da, berak ez zidan inoiz hortaz hitzik egin.

Nik ez dut halakorik esan.

Galdetu didazu ea Garaziren kustodia berreskuratu nahi dudan, eta nik ezetz esan dizut, eta hala da; baina horrek ez du ezer esan nahi amatasun sena badudan edo ez dudan. Nuen, esan behar. Zehaztu dezakezu, zure ustez, amatasun sena zer den?

Epaiketan hori esan nuen, bai.

Noski haurdunaldiaz garaiz ohartu izan banintz, ausartuko nintzela abortatzera! Ez naiz horregatik lotsatuko. Zenbat emakume ni bezala? Denei kentzen dizkiezue umeak?! Horrek ez du amatasun senarekin zerikusirik, eta are gutxiago umea ondo zaintzearekin. Eman zitzaidan tratua rengatik nago haserre, nitaz esan zenarengatik. Berez, umea kendu zidatenean izugarrizko zama kendu zidaten gainetik. Luzera begira, mesede bat egin zenidaten, baina horrek ez du esan nahi justua izan zenik. Hori bai, uste baduzue nire amarekin nirekin baino hobeto egon dela... badirudi ahaztu egiten zaizuela zein etxetatik natorren ni.

Esan dudana esan nahi dut, ez gehiago, ezta gutxiago ere.

Lasai nago.

Ohikoa nuen hilabete batean edo bitan hilekorik ez izatea, ez nion garrantzi berezirik eman.

Amenorrea.

Oso argal nengoelako, eta gauza gehiagorengatik ere bai seguruenik. Laugarren faltara arte ez zitzaidan burutik pasatu ere egin. Beranduegi zen. Nire aitag beti esan izan du adimenez soberan dudana zentzu onean falta zaidala.

Ez, ez du inoiz ikusi; tipoak ez daki Garazi existitzen denik ere. Eskerrak.

Artaburu ganorabako bat zelako. Larrutan egiteko oso ondo, hortik aurrera...puff! Joder, ez nuke nahi horrekin bizitza osorako lotuko nauen ezer.

Ez naiz inoiz damutu, ez; haurdun utzi ninduela ez kontatzea, garai hartan hartutako erabaki trebe bakarrenetako bat izan zen.

Iñakik desberdina ematen zuen. Ez zaizu gertatzen denak iruditzen zaizkizula desberdinak hasieran? Hau bai desberdina, pentsatzen nuen beti, honekin lortuko dut zoriontsu izatea. Kaka putza. Iñaki azkarra zen, eta bazuen sentsibiltatea. Batzuetan. Beste batzuetan neanderthal puta bat zen, denak bezala. Ez dakit zuk, baina nik ez dut ezagutu gizonezkoarik historiaurreko gene horretatik guztiz aske bizi denik.

Hori da, berak agindutako lekura joan ginen ardi bila, Elostara.

Ez, herriaren alde batean dago Elostia, eta Mergelu bestean. Gaizki bukatu genuen, jota gelditzen naiz orro egiten didatenetan. Laburpen azkar bat egingo dizut ondo iruditzen bazaizu: bat, falta ziren ardien arrastorik ez; bi, sastraka artean hankak urratu nituen goitik behera, odolarekin mareatu nintzen, eta, gainera, sekulakoak aditu behar izan nituen praka motzetan joateagatik; hiru, ezin nuen umea lurrian utzi, kasketa harrapatu zuen eta gerria txikituta itzuli nintzen etxera lñaki sasitzan utzita; lau, lñakik sekulakoak bota zizkidan *abandonatzen* nuelako.

Ez zen erleen egunean izan, erleen egunean umea nire gurasoekin zegoen. Handik pare bat egunetara izan zen, goizez. lñakik agurra ukatu zidan, menditik itzuli eta aurpegira begiratu ere ez zidan egin. Horregatik atera nintzen Triniren etxera umearekin; bazkaltzera gonbidatzen baninduen, eguna lñaki ikusi gabe igaro nezakeen. Ez nion berehalakoan barkatu nahi. Jota gelditzen naiz orro egiten didatenean.

Bai, askaren egunaz ari naiz orain. Eztabaidari heltzen genion unean esango nizkionak pentsatzen nindoan. Aurrez prestatu nahi nituen erreplika aukerarik gabeko esaldi batzuk; barkamena berak bakarrik eskatu beharko zuela ziurtatu nahi nuen. Unean bertan oso txarra naiz argudioak asmatzen, erantzun onak burko azpian aurkitzen dituen horietakoa izan naiz beti; motela, alegia. lñaki ere ez zen oso abila, egia esan. Haren arabera, intentsitate, eta batik bat bolumen, handiena lortzen zuenak irabazten zuen. Nik ez dakit marrurik egiten haserretzen naizenean.

Aurkitu al ditun ardiak? Hormigoizko aska luzearen ertz batean eserita zegoen Xebe, bere zakurrak ura edaten zuen bitartean.

Ezustean harrapatu ninduen berriro. Hain gorputz handia eta nolako gaitasuna kameleoiaarena egiteko. Disfrutatu egiten zuen jolasarekin. Eta nik ere bai pixka bat. Bere aldamenean esertzeko keinua egin zidan. Kasu egingo zidan norbaiten beharra nuen.

Umea besoetan neukan, atsedetik ematen ez zigun sapak gogaituta, jasanezina zebilen egun horietan. Zakurrarekin nahi zuen, gorputzari tira eta tira egiten zion aurrera; ez nion utzi, ardi-zakur haren begiraturik ez zitzaidan fidagarria iruditzen. Xebek gero nire kontra egin zituen adierazpenak ikusita, jabea baino zintzoagoa izango zen hala ere.

Arbuiatu nuelako, garbi dago umiliatu nuelako kontatu zuela gezurra. Ezezko gutxi jaso duzunean, kosta egiten da.

Ez da beharrezkoa, oso ondo oroitzen dut zer kontatu zuen askako egun hartaz.

Umea haren erruz erori zen uretara.

Niri erori zitzaidan, baina haren erruz. Eta berehala atera nuen.

Ez da egia ez nintzela ohartu, eta ez da egia ni saiatu nintzela Xeberekin. Berak jo zidan eraso.

Ez da gertakarien nire bertsioa, gertatu zena da! Alferrik da, esaten dudana esaten dudala ez didazue sinetsiko.

Ba ez du ematen.

Noski ohartzen naizela nire gezur-aurrekariak ez dutela laguntzen, ez daukazu errepikatzen ibili beharrik, ez naiz tuntu, baina egia esaten ari naiz orain.

Ezin dut frogatu, bakarrik geunden; umea txikiegia zen ezer oroitzeko eta zakurra hilda dago jada.

Txantxa zen.

Bale. Barkatu.

Dena ongi? Joanixioren garrasiak entzun ditinat lehen... Eskuarekin izterraren gainaldean jo zidan lagunkoi.

Bertan utzi zuen eskua, aldakatik gertuago belaunetik baino.

Ez nion kentzeko esan. Mugitu ere egin nintekeen apur bat urruntzeko; ez nuen egin. Egia esango dizut, total: eszitu egin nintzen. Xebek pizten zidan desiraren eta gorrotoaren arteko zera horrek asko berotzen ninduen. Horriblea da, baina halaxe zen. Beti aitortu izan dut gustuko nuela jolas hori, baina horrek ez du ezer esan nahi. Atzamar batekin askako urari eragiten hasi nintzen, eskua hor zegoela nabaritu izan ez banu bezala, jakingo ez banu bezala esku hura onartzean bera ere berotu egingo zela.

Nik hobeto zainduko hinduket.

Begiratu egin nion. Eta berak niri. Jolasa zirudien, ea nork lehenago kliskatu. Orduan gertatu zen. Ez nuen inolaz ere espero eta eskua alu gainean jarri zidan. Bere ardien errapea izango balitz bezala estutu zidan. Ezustekoarengatik erori zitzaidan umea. Okerragoa izango zen lurrera erori izan balitz, urak kolpea leundu zion behintzat.

Berehala atera nuen.

Ez dakit, segundo bat?

Zuk zer uste duzu? Negarrez ari zen, jakina. Marruka. Izugarrizko sustoa hartu zuen berak ere.

Ez dakit, pertsona bat luze etzanda kabitze modukoa, hilkutxa baten neurrikoa izango zen gutxi gorabehera aska hura.

Zabalean ere bai.

Bertan zutik sartuz gero, ez dut uste ura belaunetaraino iritsiko litzaidakeenik.

Berehala atera izan ez banu, bai, bertan itotzeko adina ur egongo zen; baina berehala atera nuen.

Ez dut oroitzen zehazki zein hitz erabili nituen. Oso haserre nengoen. Oso. Jolasean ari ginen, joder, ez naiz puta zikin bat. Garbi utzi nion ez zuela inongo aukerarik nirekin. Eta badakizu zer egin zuen? Berriz saiatu zen kabroia. Paretaren kontra behartu ninduen. Umea besoetan nuela! Sinetsi dezakezu? Koxk egiten saiatu nintzen, belaunak altxatzen, estutzen ninduen gorputz hura arbuiatzen, baina ez zuen atzera egiten, ukitzen jarraitzen zuen, marraskatzen, hatzak nire arropetan hondoratzen, kremlera eta botoietan, azaleraino iristeko amorruz. Oilo ipurdia jartzen zait oraindik une hura gogoratzean, ikusi. Belaunarekin barrabiletan asmatu nionean egin zuen atzera. Sekulakoak esan nizkion, gorputz osoak egiten zidan dardara; umiliatu nahi nuen, haren gizentasuna birrindu.

Denetik, ez dakit.

Ez dakit, esan dizut sututa nengoela. Oso gutxitan jartzen naiz horrela, baina jartzen banaiz, guztiz joaten zait burua.

Umea nirekin, besoetan, marruka.

Hala gertatu zen.

Esan dizut zergatik esan zuen gezurra: umiliatu duzu inoiz gizon bat?

Ba hori.

Etxera joan eta umea lehortu, zer egingo nuen ba? Eta negar saio galanta egin.

Ez, etxean geratu nintzen. Ez nuen inork negar egin nuela nabaritzarik nahi.

Iñaki ez zen iluntzera arte azaldu.

Ez. Hori kontatzeko Xeberekin aurretik izandako lizunkeria guztia aitortu behar niolako; eta nahikoa neukan gure haserrealdia gobernatzearekin. Gau hartan ez genion hitzik esan elkarri. Gero ere ez ia. Hurrengo egunean gertatu zen istripua.

Nola nahi duzu deitzea? Istripu bat izan zen.

Lanean zen. Lanean ari izan ez balitz, ez nintzatekeen ni joango ardien bila.

Hori egia da, berak ez zidan joateko eskatu. Arrazoi nuela demostratu nahi nion, muturren aurretik pasatu ardiak nik esandako lekuan zeudela.

Trini? Betiko moduan, ez dakit. Ez nion ezer arrarorik nabaritu umea utzi nionean.

Hori ere egia da. Ezetz esan nien; badakit nire gurasoekin hobeto egongo zela, baina etortzen uzten nienetan damutu egiten nintzen. Seguru ez zutela kontatu azkenekoz hori egin nuenean, herria urruti zegoelako aitzakian, inork gonbidatu gabe pasatu zituztela lau gau Iñakiren etxean. Gainera, ez neukan haien aurrean zorion perfektua antzezteko indarrik. Ordurako damu-kiratsa zerion bertara bizitzera joan izanaren erabakiari, baina ezin nien gurasoei halakorik esan.

Nire amaren beste garaipen bat? Ezta pentsatu ere.

Adibidez?

Bai zera, horrek ez du nire amarekin funtzionatzen; dena zuri edo dena beltz. Badakit hala iruditzen zaizula, amak oso ondo disimulatzen daki. Nik ere bai, baina ez bere aurrean. Umea Triniren etxean utzita joan nintzen Mergelura. Aldapa gora eta eguerdiko eguzkitan. Han dena zen gora edo behera. *Herri hau bizitzeko dun polita, lanerako ez*, iragarri zidan Trinik ezagutu nuen egunean. Berez, mendian gertatu zenak ez dauka garrantzi handirik; nahi baduzu, deia jaso nuen unera joan naiteke zuzenean. Itzulerakoak inporta du, irakurri zure informean, ikusiko duzu hala dela.

Ez da nire asmoa zure lana nola egin behar duzun esatea, erraztu nahi nizun, besterik ez.

Presarik ez, joateko gogoia bai.

Ez nintzen gai izan larreei pasoa ematen zion langa zabaltzeko eta gainetik pasatu behar izan nuen. Aurreneko belardi handienez animaliarik ez nuen ikusi; eguzkiak erre baino lehen jartzen dira itzalean. Goizago joan izan banintz, bertan aurkituko nituzkeen seguruenik eta azkarrago itzuliko nintzatekeen eta ez zen gertatu zena gertatuko. Baina umea petralduta esnatu zen egun hartan ere, berandutu egin zitzaidan.

Negarrez utzi nuen.

Itzuliko nintzela esan nion eta martxa egin nuen. Zertarako saiatuko nintzen lasaitzen? Beti gelditzen zen negarrez beste norbaitekin uzten nuenean.

Nire amarekin ere bai.

Ez dut uste trauma bat egingo zitzaionik horregatik.

Belardia hutsik zegoela ikusita, mendian gora egitea erabaki nuen.

Ez da animaliei buruz asko jakin behar pentsatzeko eguzkitan ez badaude itzalean egongo direla, ez? Berehala ikusi nituen hantxe, zuhaitzak hasten ziren gunean, hostoen itzalpean, ardi batzuk. Pausoa bizkortu nuen, baina pozak ez zidan asko iraun: margo urdina zeukaten, Asubekoak ziren denak. Iñakik arrosaz pintatzen zituen. Pasatu zitzaidan burutik itzultzea, etsitzea. Beste behin ere etsitzea. Trinik esana zidan emango ziola umeari pure pixka bat bazkaltzeko eta lasai ibiltzeko ni. Han inguruan, gorago, bazeuden itzalgune pare bat gehiago eta saiatu nahi nuen. Ulertzen duzu zergatik, ezta?

Gora iristean, ahots bat entzun nuen. Gorputz osoa tenkatu zitzaidan, berunezko soineko bat jantzi izan banu bezala. Xebe zelakoan, zuhaitz baten atzean gorde nintzen. Mendizale talde bat zen. Handik zelatatu nituen eta emakumezkoak ere bazeudela ikustean atera egin nintzen galdetzera.

Ardi batzuk ikusi ditugu, hantxe, pixka bat atzerago; baina ikaratu egin dira eta alde egin dute.

Ze aldetara?

Beheraka, beste aldera.

Gogoratzen ze margo zuten bizkarrean?

Orduan jo zuen telefonoak. Triniren etxeko zenbakia zen, Trinik ez zidan inoiz deitzen. Sentsazio hura ezaguna zitzaidan lehendik ere, bizikletarekin uste zenuena baino aldapa pikoago baten goialdean egotea bezalakoa. Abiadura kontrolatzeko gai izango zarela esaten diozu zeure buruari, gelditzeko gai, nahiz eta hasieratik jakin erorketa saihestea ez dagoela zure esku.

Josefa zen telefonoan, bizilagun bat. Berak aurkitu zituela: Trini konortea galduta lurean etzanda, luze, eta umea haren ondoan. Umearen makakorroak entzun zituelako sartu omen zen, Triniri laguntzera. Ez dut sekula halako korrika saiorik egin, belaunak eta sorbaldak urratuta iritsi nintzen, bidean behin baino gehiagotan erorita. Josefak zeukan umea besoetan. Orroka ari zen, arrantzaka. Inoiz ez bezala. Eta bi eskutxoak, gorri-gorri, erre-erre eginda, joder, irudi hori betiko geratu zait hemen grabatuta. Be-ti-ko. Umea hartu eta nire kontra estutu nuen, neure barrura sartu nahian bezala, haren mina nik sufritzea posible balitz bezala. Labeko kristalaren kontra jarri zituen eskuak. Arkumea erretzen ari zen Trini. Bururatu egin behar zaio bero sapa hartan labea piztea!

Markaren bat geratu zaio, baina amak esan zidan apenas nabaritzen zaiola; oso txikia zen eta umeak erraz birberritzen dira.

Ez dut hori esaten gertatutakoari garrantzia kentzeko. Oso gaizki pasatu nuen.

Umeak ere bai, jakina.

Ez, aspaldi utzi nituen. Ondo nago. Ziur horren gaineko informeak ere badituzula. Lehenago ere ez nuen pastillarik behar, behartu egin ninduten.

Bale, ba «gomendatu» egin zizkidaten.

Kakotxoak irudikatu ditut hatzekin, biok dakigulako gomendio hori agindua zela. Psikiatrikoarekin mehatxatu ninduten, ez nuen beste aukerarik.

Bai, abokatuak azaldu zidan orduan.

Hamaika aldiz errepikatu dizudan arren, ez duzu ulertzen: berdin zait umea behin-behinean kendu zidaten edo denboratxo batera kustodia berreskuratu nezakeen edo ama moduan nituen eskubideak. EZ NUEN NAHI. Kito.

Hamahiru beteko ditu laster.

Urtean pare bat aldiz hitz egiten dut amarekin eta izaten dut haren berri, gauza gutxi. Ez dut kendu zenidatenetik ikusi.

Neuk egin nien uko bisitei.

Histerikoa, gezurti patologikoa eta ninfomanoa nintzela adierazi zenuten, emakume ganorabakoa, bere umeari ere gutxieneko arreta emateko gai ez dena, tratu txarrak ematen nizkiola jartzea falta izan zitzaizuen.

Ez naiz esajeratzen ari, agian ez zituzten hitz horiek erabili, baina hori esan nahi zuten. Umiliagarria izan zen.

Bai, esan zidaten umearentzat onuragarria zela nirekin harremana izatea.

Nire buruaren gainetik pasatzea izango zelako.

Eta?

Ez dut ulertzen gaurko saio honen helburua.

Berriz? Joder, ondo grabatuta gera dadila: Ez dut kustodia berreskuratu nahi.

Kontua ez da zuk gai ikusten nauzun edo ez, kontua da nik ez dudala nahi eta puntu. Entzun, hamar urte baino gehiago pasatu dira, umea kendu zenidaten bere senean ez dagoen pertsona bat izango banintz bezala, behartu ninduzuen psikologo psikiatrari nire miseriak kontatzera. Ero puta bat izango banintz bezala. Eman zizkidaten pastilla guztien ondorioz memelotuta pasatu nuen ez dakit zenbat denbora. Eta orain, bizitza normal samarra izatea lortu dudanean, hona zatozte atzera ere dena nahastera?

Ez, nik esango dizut zer den behar dudana!

Ez naiz lasaituko! Behar dudana da norbaitek esatea egin zitzaidana ez zela justua izan, hanka sartu zenutela, eta barkamena eskatzea, joder!

Ze eskaera? Zertaz ari zara? Berdin zait. Ez dut ezer jakin nahi. Nire gurasoek egin dute eskaera, ezta? Ume hau ere oker atera zaie nire moduan, eta orain itzuli egin nahi dute. Ez nintzateke harrituko.

Ez? Orduan, nork?

Ostia. Garazik? Hori bai ez nuela espero.

Ni erditu nintzen hartaz, baina ez naiz haren ama, ez nau ezagutzen. Nirekin bizitzera etorri nahi du

benetan?

Baina adin txikikoa izanda, egin dezake eskaera hori?

Joder... Arrazoiak eman ditu?

Joder joder joder.

Ur pixka bat ekarriko didazu?